

LH DUAL OROKORRA EUSKARAZ

2. MAILA

- Egunean 8 ordu lantokian (adingabeek 7 ordu).
- Dual orokorra soilik 2. mailan eginda: 360-496 ordu.
- Dual orokorra 1. maila eta 2. maila eginez gero guztira: 546-625 ordu.
- Enpresak ez dio ikasleari ordaindu behar.
- Ikasleak ikastetxeak eginiko aseguruak izango du.
- **Informazio gehiago:** lhdualaeuskaraz.eus



Instruktorea*



Harrera



Hizkuntza paisaia %50



Lantaldea %50

LAU ALDAGAI EUSKARAZ

- Ikasleak ezinbestean instruktore eskalduna izan behar du.
- Lau aldagai hartzen dira kontuan: instruktorea eskalduna izatea (ezinbestekoa), harrera euskaraz egitea, hizkuntza paisaiaren %50 euskaraz izatea eta lantaldearen %50 euskaraz aritzea.



Hasiera

- Enpresak eta ikastetxea harremanetan jarri eta eskaera egin.
- Lehenengo hitza euskaraz.
- Telefonoz edo idatziz.



Ikasle kopurua

- Kontrastatu ikasle kopurua eta adostu.
- Egutegia, ordutegia aurreikusi.

Datuak

- Enpresa-ikastetxea: datuak eta informazioa trukatu.*
- Instruktorea-tutorea izendatu.

Hitzarmena

- Ikastetxea-enpresa bisitak.
- Hitzarmena.*

Harrera

- Ikasleari harrera*: enpresaren izaera (hizkuntza-plana, lan ohiturak, organigrama, segurtasun-neurriak, prozesuak, larrialdi-plana...).
- Egutegia-ordutegia, lan-esparrua, instruktorea, lankideak...



Enpresa egonaldia

- Ikaslearen koaderno.*
- Instruktorearen koaderno.*

URRIA

ENPRESA

Enpresaren beharrak aztertu eta inguruko ikastetxeak dituzten Heziketa Zikloak aztertu.

IKASTETXEA

Bilera: LANeNPRES gida aztertu eta plana egin.

AZAROA

Enpresaren eta ikastetxearen arteko hitzarmena aztertu eta egokitu.

Dokumentazioa aztertu eta egokitu.

ABENDUA

Enpresak ikastetxeei ikasleak eskatu, enpresako hizkuntza-egoera kontuan izan.



Informazioa eta datu-eskaera bidali.



URTARRILA

Ikastetxearekin aztertu zein ikasle dagoen LH Dual orokorra egiteko moduan.



- Enpresak aztertu eta datuak jaso.
- Enpresak aztertu zein instruktore eskaldun dituen.



Ikasleentzako jardunaldia antolatuz: Euskararen garrantzia laneratzean eta enpresa-egonaldian.



OTSAILA

- Bilera: enpresa eta ikasleak esleitu.
- Enpresari diru-laguntzen berri eman.
- Ikasleak egin ditzakeen lanak zehaztu. Ikaslearen, tutorearen, instruktore/tutorearen koadernoak egokitu.



MARTXOA

Ikaslea enpresan jarri: Ikasleari harrera euskaraz, ahal bada.



APIRILA

Ikaslearen eta enpresaren datuak hezkuntzako aplikazioan sartu.



MAIATZA

Ikaslearen egoera aztertu.



- Ikaslearen jarraipena egin.
- Enpresa-egonaldietako ikaslearen estatistikak atera.

EKAINA

- Ebaluazioa: ikaslearen enpresa-egonaldiaren bukaera, dokumentazioa banatu eta jaso. Euskararen trataera eta estatistikak aztertu.
- 4 aldagaien datua berrikusi. Hezkuntzako aplikatibotik Laneki txostena deskargatu.



Bilera: hobekuntzak planteatu datorren ikasturterako.

- Enpresa-egonaldiko memoria egin, hobekuntzak eta Dual-eko proposamena planteatu.
- Ikasleari diploma LH Duala euskaraz markarekin.



Euskara kontuan izateko momentu giltzarriak.

Instruktore eskalduna.

Instruktore-ikasle arteko komunikazio hizkuntza euskaraz.

LH Duala euskaraz 4 aldagaiak.

Autodiagnostiko tresna.

Laneki txostena.

*Dokumentu ereduak Lanepres eta Lanpres gidetan. lhdualaeuskaraz.eus